



EGITASMOAREN IZENA

“ARRASATETIK MUNDURA, MUNDUTIK ARRASATERA” ipuin kontaketak

“ZUBI BAT EUSKARATIK” DEKALOGOKO ZEIN OINARRIRI ERANTZUTEN DIO

- * Eskubide linguistikoak babestu.
- * Parte hartze sozialerako aukerak sortu.
- * Erabilera eta hizkuntza ohituretan eragin.
- * Hizkuntzak eta euren arteko harremanak kudeatu.
- * Aurdurak partekatzeko aliantzak egin.
- * Euskara eta aniztasunaren inguruko usteak deseraiki.

AZALPEN LABURRA

Herriaren errealitate kultur anitza eta eleanitz berri baten aurrean, berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eraiki nahi genuen, hizkuntza eta kultura aberastasun hori guztia ezagutzera emanez eta, bide batez, aurreiritziak gainditzeko, besteen azalean jartzeko eta zurrumurrueetatik harago begiratzeko sentsibilizazioa egiteko ere baliatuz. 2015ean, Udaleko Aniztasun sailak, Udal bibliotekak eta Ekin Emakumeak elkarteak elkarlanean sortutako proiektua dugu hau. Ipuinen bitartez, herritik harago, munduaren ikuspegi zabalago bat eskaintzeko proiektua, alegia.

HELBURUAK

Kultura aniztasunean murgilduz, bizikidetzaz erraztu eta herritarrei munduaren ikuspegi zabalagoa eskaini elkarbizitza positibo bat sustatzeko.

HARTZAILE ZUZENA(K)

Bost urtetik gorakoentzat eta haien gurasoentzat.

FUNTZIONAMENDUA

Hiru hilean behin, Arrasaten entzun daitezkeen hizkuntza horietako bat aukeratzen dugu, jatorrizko hizkuntza hori duen herritar bat kontaktatzen dugu eta bere jaioterriko pare bat ipuin kontaktzera gonbidatzen dugu. Herritar hori euskal hiztuna ere bada, ipuin berberak jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz kontaktzera animatzen dugu eta hori posible ez bada, Arrasateko edo inguruko herrietako ipuin kontalari bat gonbidatzen dugu euskarazko bertsioa kontaktzera. Saioetan, tokatzen den herrialdera hurbiltzeko, oinarritzko informazioari ere tartetxoia ematen diogu. PPT baten laguntzaz, kokapena, hizkuntzaren idazkera, pasaiak, fauna, bandera, janzkera, haurren jolas ohiturak ... irudiz eskaintzen dizkiegu hartzaileei. Ondoren, ipuin kontaketa egiten da eta amaieran, ipuin kontalariei galderak egiteko gonbita luzatzen da eta, hainbat kasutan, herrialdeari egokitutako musika eta dantza tradizionalaz gozatzeko aukera izan dugu.

NON MARTXAN [2021-2022]

Arrasaten

ANTOLATZAILEA(K)

- * Arrasateko Udaleko Aniztasun saila.
- * Arrasateko Udal biblioteka
- * Ekin Emakumeak taldea.

Ekin Emakumeak elkarte:

943 79 83 70 / 651 70 79 36

aniztasuna@ekinmakumeak.eus

emakumeak@ekinmakumeak.eus